



**1/2024 LEGEA, otsailaren  
8koa, Trantsizio  
Energetikoaren eta Klima  
Aldaketarena**



# 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena




Lege honen bidez, Euskadik klima-aldaketaren aurka borrokatzeko bere konpromiso-politika ezarri nahi du, eta zero emisio garbiko ekonomiarantz trantsizioa egiteko erabil daitezkeen estrategiak eta tresnak konfiguratu nahi ditu arau-mailan. Horregatik, lege honen bitartez, trantsizio energetiko-klimatikoa lortu nahi da, euskal ekonomiaren lehiakortasun-oinarriak mantenduz eta hobetuz, eta trantsizio teknologiko-digitalean eta sozialean oinarrituz.




## Xedea

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen xedea Euskadin 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko esparru juridikoa ezartzea da, Europako eta Estatuko legediaren ildotik. 2030erako berotegi-efektuko gasen isuriak % 45 murrizteko tarteko helburu bat ezarri da, 2005. urtearekin alderatuta.



## Helburuak

Bere helburuak hauek dira: **emisioak murrizteari eta klima-aldaketara egokitzeari** buruzko nazioarteko konpromisoei laguntzea, aurrezpenaren, efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien bidez **trantsizio energetikoa** bultzatzea, **ekonomia eta enplegua** indartzea, **lurraldearen erresilientzia** handitzea, **lehiakortasun industrial**a sustatzea, **berrikuntza** eta **ekonomia zirkularra** sustatzea, **digitalizazioa** eta **herritarren parte-hartzea** bultzatzea sistema energetikoan, **trantsizio justu** eta **ekitatiboa** bermatzea, **energiarako sarbidea** demokratizatzea, eta **lotutako informazioaren** hezkuntza, ikerketa eta hedapena sustatzea.




## 55. artikulua

Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroa funtsezko tresna da Euskadin ingurumen- eta energia-politikak kudeatzeko.

Bere helburu nagusia: erakunde publiko eta pribatuek doan izena eman dezaketen espazio bat eskaintzea da. Non klima-alaketaren aurkako borrokan eta energia-eredu iraunkorrago baterako trantsizioan dituzten konpromisoak eta ekintzak publikoki nabarmendu izan ahalko dituzten.

Erregistro hau derrigorrezko eta hautazko zatiz osatzen da, eta zati bakoitza aspektu ezberdin batzurekin erlazionatzen da. Aspektu horien adibide: berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen murrizketa eta klima aldetara moldatzeko neurriak ezartzea izango litzateke. Honek ere, karbono-aztarnaren kalkulua eta gutxiagotzea hartzen ditu kontuan, eta baita eraldaketa energetikoaren eta emisioen arintzera orientaturik dauden proiektuak aurkeztea ere. Izan ere, ingurumen-ekintzen gama ugari hartzen ditu barne.



## 55. artikulua

Erregistroaren barne-funtzionamendua, edukia eta inskripzioa egiteko baldintzak zehaztuko dituzten erregelamendu zehatzak ezarriko dira. Garrantzitsua da erregistro horrek sarbide publikoa izango duela nabarmentzea, ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeko eskubideak arautzen dituen indarreko araudiarekin bat etorriz, datu pertsonalak babesteari buruzko lege-xedapenak errespetatuko direlarik.

Gainera, kontratazio-organoei erregistro horretan inskribatzeko ahalmena ematen zaie, beren kontratazio-prozeduretan faktore garrantzitsu gisa kontsideratzeko, eta horrela, administrazio publikoak bere jarduera eta kontratazio guztietan praktika jasangarriak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak sustatzeko duen konpromisoa islatzen da.

